

Hobetu egin dira kirol-instalazio publikoak, nahiz eta udalek gutxiago inbertitu

ALDE HANDIAK DAUDE HIRITIK HIRIRA. ONGIEN HORNITUTA DAUDENEN ARTEAN, GASTEIZKOAK, BARTZELONAKOAK ETA DONOSTIAKOAK OROHAR, INSTALAZIORIK GEHIENAK ONGI ZAINDUTA DAUDE, GARBI ETA SEGURUAK DIRA ETA IRISPIDE ONAK DITUZTE, BAINA GABEZIAK DITUZTE INFORMAZIOAREN ETA ZERBITZUEN ATALEAN

- Gero eta jende gehiagok egiten du kirola. Igeri egin, futbolearen aritu, saskibaloian, tenisean... aukera ugari eta azpiegitura osatuak eskaintzen zaizkie herritarrei, eta adin guztietako jendea ikusten da kiroldegietan; kirolak, izan ere, hainbat onura fisiko eta emozional ditu berekin. Azken 30 urteetan, erruz ugartu dira kirol-instalazioak (% 77 baino gehiago), eta eraiki dituzten guztietatik, publikoak dira hirutik bi. Azpiegitura horiek egoki kudeatzeko, dirua inbertitu behar izaten da, eta halaxe egiten dute guk aztertu ditugun hiriburuetako udalek, nahiz eta orain lau urte baino gutxiago jartzen duten proportzioan. Halaxe egiaztatu du EROSKI CONSUMER-ek egin berri duen azterketak: 18 hiriburutako kirol-azpiegitura publikoak aztertu ditugu, eta 143 instalazio ikusten izan gara. Honako hiriburu hauetan egin dugu azterlana: A Coruña, Alacant, Bartzelona, Bilbo, Cadiz, Donostia, Gasteiz, Granada, Iruñea, Kordoba, Madril, Malaga, Murtzia, Oviedo, Sevilla, Valentzia, Valladolid eta Zaragoza. Emaitez erakusten dutenez, kirol-instalazio publikoak hobetu egin dira azken lau urteetan, nahiz eta udalek gero eta portzentaje txikiagoa bideratzen duten horietara aurrekontuetatik. 2006. urtean ere antzeko ikerketa bat egin genuen, eta harekin alderatuta, zera ikusten da: hornidurak nabarmen hobetu dira, baina oraindik ere bada zer egina: igerileku bat dago 19.500 biztanleko (2006an, bat 21.000 biztanleko), gimnasio bat 15.600 biztanlerentzat (2006an, bat 18.500 biztanlerentzat) eta futbol-zelai bat 17.700 herritarrentzat (2006an, bat 21.300 herritarrentzat). Kopurua bezala, kalitatea ere handitu da, eta guk aztertu ditugun instalazioek emaitza 'ona' eman dute; % 4 soilik geratu dira gutxieneko mailara iritsi gabe garbitasunaren, segurtasunaren, irispideen, mantentze-lanen eta informazioaren ataletan.



ZENBAT DIRU JARTZEN DUTE UDALEK KIROLAREN ZATZAT?

Guk aztertu ditugun 18 udalek, batez beste, urtean 24 milioi euro gastatzen dituzte kirolean (46,5 euro biztanleko). Ehunekoetan neurtuta, aurrekontu osoaren % 3,8 (100 bakoitzeko, ia 4). Honako udal hauek eskaini diote diru gehien kirolari: Gasteiz (aurrekontu osoaren % 9,1), A Coruña (% 5,5), Valladolid (% 5,4), Donostia (% 5,3), Murtzia (% 4,5) eta Oviedo (% 4,3). Gainerako hiriek, % 3 baino zerbait gutxiago bideratu dute kirolaren zatza urteko aurrekontutik, eta gutxien-gutxien, Malagak (aurrekontuaren % 1,5 besterik ez), Zaragozak (% 2) eta Alacantek (% 2,4). Lau urtean, % 1 egin du behera kirolaren alorrean gastatu den diruak. Hiru hirik baino ez dituzte handitu kopuruak: A Coruña, Donostia eta Valentzia. Beste zenbaitek, berriz, erdira murriztu dute diru atala; hori gertatu da, adibidez, Oviedon (2006an, hiri horrek gastatzen zuen diru gehien, aurrekontuaren % 8,4) eta Madrilan (bigarren lekuan ageri zen 2006an, eta aurrekontuaren % 7,2 jartzen zuen kirolerako).

KIROL-INSTALAZIOETAN, ALDE HANDIAK

Hiri bakarrak ere ez dauka kirol-hornidura bikain-bikaina, baina, oro har, 2006tik honako bilakaera ona izan da guztietan. Gaur egun, igerileku bat dago, batez beste, 19.500 biztanleko (2006an, bat 21.000 biztanleko), gimnasio bat 15.600 biztanlerentzat (duela lau urte, bat 18.500entzat), futbol-zelai bat 17.700 herritarrentzat (2006an, bat 21.304 herritarrentzat) eta tenis-pista bat 20.500 lagunentzat (duela lau urte, bat 25.016rentzat). Bilakaera on horren salbuespen moduan, kiroldegi estaliak ageri dira: 2006. urtean, kiroldegi bat zegoen 26.000 biztanlerentzat, eta gaur egun, 33.000 biztanlerentzat dago kiroldegi bat. Hiri batzuk askoz hobeki hornituta daude beste batzuk baino. Gasteizen, Donostian eta Bartzelonan eskurago daukate kirola egiteko aukera, adibidez, Alacanten, Granadan eta Sevillan baino.

Igeri egitea maite dutenentzat, Gasteiz da hiririk onena (igerileku bat 8.728 biztanle bakoitzeko, eta gehienak estaliak), eta Cádiz kaskarra (igerileku bat 63.383 biztanleko). Futbol-zelaian ere Gasteiz nabarmendu da, Valladolidekin batera (zelai bat dute 10.000 biztanle bakoitzeko). Erabilera anitzeko pista irekietan ere Valladolid azpimarratu behar da onerako (halako bat dago 5.500 biztanleko), eta Madril, aldiz, txarrerako (halako bat, 22.600 biztanleko). Tenisean jokatu zale direnek, Granadan, Valladoliden eta Malagan daukate aukera gehien (pista bat 15.000 biztanleko), eta gutxien, Alacanten (pista bat 30.400 biztanleko). Tenisean ez, baina padelean aritu nahi dutenek, A Coruñan aurkituko dute eskaintzarik ugariena: 76 pista ditu guztira hango herritarrentzat; Bartzelonak, aldiz, 15 baino ez herritar guztientzat.

INSTALAZIOAK BISITATU DITUGU

Bisitatu ditugun kirol-instalazio publikoak egoera onean daude, eta segurtasun-neurri eta irispide egokiz hornituta. Duela lau urte ere antzekoa izan zen emaitza; orduko hartan, % 7 geratu ziren azterketa gainditu gabe atal horietan, eta orain, % 4 izan dira oinarriko eskakizunak bete ez dituzten kirol instalazioak, nahiz eta % 9k emaitza 'onargarria' baino ez lortu. Bi atal nabarmendu dira beste guztien gainera: segurtasuna batetik eta mantentze-lanak eta garbitasuna bestetik (emaitza 'oso ona' lortu dute bietan). Aldiz, erabiltzaileari zer informazio eta zer zerbitzu ematen dioten aztertu dugunean, aski emaitza apala lortu dute ('onargarria'). Irispideei dagokienez, 'ona' izan da batez besteko emaitza.

GARBIAK ETA SEGURUAK

Garbitasunaren eta mantentze-lanen atalean emaitza 'oso ona' lortu dute hiriek, orain dela lau urteko azterketan bezala. Gainera hobetu egin da egoera: 2006an, % 4 geratu ziren azterketa gainditu gabe, eta orain, % 1 besterik ez. Ez ditugu antzeman gabetia asko, baina batzuk bai. Mantentze-lanetan, esaterako, instalazioen % 10i ikusi dizkiegu akatsak. Futbol-zelaietako ateen sareak hondatueak egon



Hiriz-hiri alde handiak daude Gasteiz, Bartzelona eta Donostia dira instalazio aldetik emaitza onena lortu dutenak

zenbat kostatzen da kirola egitea?

Tarifa eta txartel mota ugari izaten dira hirietan kirol-instalazioen bazkide edo erabiltzaileentzat, eta oso zaila da horiek guztiak irizpide bakarraren arabera bateratzea. Faktore batzuk ezar daitezke, hala ere, prezioak sailkatzeko. Hona hemen adibide batzuk:

Denboraldi osoko txartela, 18 urtetik gorakoentzat, 83,70 euro kostako zaie aurtengaztearen 25 urtetik gorakoei (18 eta 25 urte bitartekoek, 79,50 ordaintzen dute), urtean 109,2 euro Bilbon, 119,20 euro Valentzian eta 190,70 euro Donostian (Helduen kirol-txartela deitzen

dute han). Madrilan eta Valladoliden, berriz, hileroko ordaintzen dute kuota. Madrilan, 17,70 eurotik 38,50 eurora bitartean dabil kuota (instalazioa zenbat egunetan erabiltzen den, egun bat, bi edo hiru egunetan). Valladoliden, berriz, 21,10 eurokoa da.

Familia-txartela ateratzeko aukera ere aski hedatua dago. Bilbon, urtean 162,95 euro ordaintzen dute txartel hori, Donostian 283 euro (Familiako kirol-txartela), eta Valentzian, 357,55 eta 408,85 euro artean kostatzen da, familiak zenbat kide dituen, horren arabera.

Valladoliden, berriz, familia-unitateari gehitzen zaion kide bakoitzak 21,10 euro ordaintzen ditu hilean, eta bosgarrenak doan izaten du.

Azkenik, **60 edo 65 urtetik gorakoentzat,** beherapen aipagarriak egiten dituzte. Alacanten eta Gasteizen, esaterako, % 50 merkeagoa da kuota. Madrilan, berriz, hilean 4,30 euro eta 7,60 euro artean dabil pertsona horientzako kuota (zenbat egunetan erabiltzen duten, behin edo bitan).



dira eta saskibaloiko saskienak ere bai (% 10ean ikusi ditugu halakoak), pintura esku baten premia eduki dute instalazio batzuek jolas-eremua egoki mugatzeko (% 12k), eta zorua zikin eta egoera txarrean egon da (% 9).

Aldagelei ere erreparatu diegu (600 aztertu ditugu guztira), eta % 2 soilik iruditu zaizkigu oso zaharrak. Ate batzuek ez dute eduki heldulekurik, eta barruan itxita geratzeko arriskua egon da; azulejuak apurtuta eduki dituzte; hezetasun-arrastoak ikusi ditugu; hodiak herdoilduta egon dira... (Alacanten, berritu beharra eduki du bost aldagelatatik batek). Garbitasuna eta higiena ere ona izan da aldagarik gehienetan, eta % 1 bakarrik egon da zikin gu han izan garenean.

Segurtasunaren atalean instalazioen % 3,5 geratu dira azterketa gainditu gabe (2006an, % 5 izan ziren) eta % 1,4k emaitza 'onargarria' lortu dute (2006an % 12k atera zuten nota hori). Instalazio gehienak ongi egokituta daude eta ederki betetzen dituzte segurtasun-neurri nagusiak (larrialdiko argiak, su-itxalgailuak...). Larrialdiko irteera nondik den adierazten duten kartelak ere behar-beharrezkoak izaten dira, baina instalazioen % 14k ez dituzte eduki. Bestalde, erabiltzaileen osotasun fisikoa arriskuan jar dezaketen elementuak ikusi ditugu % 4tan: zoru hondatuak eta pitzatuak, garaiera handi samarra duten gune hesitu gabeak, konponketa-lanak kirol pistetatik gertu, eta abar.

Gainera, igerilekua irekita eduki duten instalazio gehienetan (igerilekua daukatenen artetik, % 71 egon dira irekita), soroslea bat, behintzat, egon da gu bisitan joan garenean (% 4k soilik ez dute eduki soroslerik).

**INFORMAZIOA ETA ZERBITZUAK:
BADA ZER HOBETU**

Atal hori zaintzen dute okerren instalazio mota horietan. Guk aztertu ditugun artean, esaterako, ia zazpitik batek ez du gainditu azterketa, eta beste % 25ek, emaitza apala atera dute ('onargarria'). Lau urteren buruan, hala ere, hobera egin dute atal horretan; izan ere, 2006an, lautik bat geratu zen azterketa gainditu ezinik, eta % 22k lortu zuten emaitza 'onargarria'. Gabezia ohikoena hauexek: seinale falta (% 11k), gune bakoitzaren erabilera arauak ez daudela adierazita (% 45ean), ordutegia ez dagoela karteletan jarrita (% 36an) edo iradokizunen kutxa falta dela (% 38an).

Erabiltzaileei eskaintzen dizkieten zerbitzuen artetik, nabarmendu behar da instalazioen % 80k arropa gordetzeko armairutxoak eduki dituztela aldagelatan. Paperontziak eta birziklatzeko edukiontziak, aldiz, bostetik bakarrean egon dira, eta erdiek ez dute eduki ez kafetegirik eta ez tabernarik. Erizaindegia edo botika-kutxa, berriz, lautatik hirutan egon da argi eta garbi adierazia.

Kirol-azpiegitura iraunkorrak?

Kirol-instalazioek ere kutsatzen dute. Hain zuzen, Udalerrien Kirol Politiken VI. Jardunaldiak egin zituzten Bilbon apirilean, eta hainbat neurri proposatu zituzten han, kirolgune horiek iraunkorrako egite aldera: hondakinak birziklatzea (arriskutsuak eta ez-arriskutsuak), ura aurrezte, eguzki-panelak erabiltzea, eta abar. Hiri askok lehenagotik ere jarriak zituzten halakoak abian:

Valladolid: duela hamarkada bat jarri zituzten eguzki-panelak kirol-instalazioetan. Gainera, fluxometro deitzen direnak erabiltzen dituzte (komunera ur asko isurtzen duten iturriak dira, eta ez da behar izaten zisternarik), tenporizagailua duten

txorrotak (ura aurrezteko) eta jendea dabilenean soilik pizten diren argiak.

Zaragoza: beste neurri batzuen artean garrantzi handia ematen diote ura aurrezteari, hori dela eta kiroldegietan ureztatze sentsoreak jarri dituzte eta komunetako iturriek ez dute urik ematen inork ez badauka eskua txorrotaren azpian. Gainera, oinarri-oinarrizko jotzen dute erabiltzaileari informazio egokia ematea eta horretarako kartelak eta eskuorriak zabaltzen dituzte kiroldegien funtzionamendua ahalik eta iraunkorrena izan dadin.

Gasteiz: 1999. urtetik, energia-iraunkortasunari (CO2) lotuta erabiltzen

dituzte galdarak (berogailua eta Ur Bero Sanitarioa), eta kontsumoak gutxitzeko hobekuntzak ere egin dituzte.

Valentzia: 2003. urtetik, eraikinak birmoldatzeko eta egoki diseinatzeko lanean ari dira, eta, horrela, energia berriztagarriei etekina ateratzeko sistemak ezartzeko moduak hobetu nahi dituzte (argi eta aireztatze naturala eduki dezaten, isolamendu termiko egokia...).

Sevilla: orain dela bederatzirte urte, energia-eraginkortasuna lortzeko eta ura aurrezteko plana abiarazi zuten Andaluziako hiri-buruan, eta ia zoko ekitaldian, 2009an, eguzki-plakak jarri zituzten kirol-instalazioetan.

Donostia: kirol-instalazio publikoen energia-kontsumoa optimizatzeko proiektu bat diseinatu dute. Eguzki-plaka fotovoltaikoak dauzkate zenbat kirol-instalazio publikoren teilatuetan.

Bilbo: hainbat sistema erabiltzen dituzte kirol-instalazio publikoetan energia gutxiago kontsumitzeko, ur gutxiago (igerilekuetan, ureztatze-sistemetan...) eta gas gutxiago: galdara berri eta eraginkorragoak jarri dituzte lehengo zaharren lekuan, eguzki-planta fotovoltaikoak sortu dituzte, euri-urak erabiltzen hasi dira eta igerilekuetako urari bero eusteko sistemak, besteak beste.

Instalazio horietara iristea ez da izaten erraz-erraza beti. Ia guztietara joaten da garraibide publikoren bat baina % 36k soilik daukate bidegorria inguruan (Gasteiz eta Donostia dabilta ongien horretan).

IRISPIDEAK ONAK, ORO HAR

Aztertu ditugun kirol-instalazioen % 11 soilik geratu dira atal horretako azterketa gainditu gabe (2006ko azterketaren ehuneko antzekoa izan zen), nahiz eta % 9k emaitza 'onargarria' besterik ez duten lortu. Aztertu ditugun instalazioen % 9k irispide txarrak eduki dituzte, eta beste % 12tan, eskailerak igo behar izaten dira barruko guneetara iristeko.

Bestelako gabezia batzuk ere antzeman ditugu: % 18k ez dute eduki komun egokiturik ezinduentzat (Oviedon bat bera ere ez dugu ikusi), eta % 30etan, igerilekurako sarbidea ez da egon behar bezala egokitua. Gainera, bost kirolguneetatik bik ez dute eskaini ezinduentzako aparkalekurik inguruan (Alacanteko eta Iruñeko instalazioetan, batek ere ez).

Azkenik, garrantzitsua izaten da informazioa braille hizkuntzan jartzea, baina inor gutxi betetzen du hori: instalazioen % 85ek, gutxi gorabehera, ez dute eman kartel bat bera ere hizkuntza horretan: ez kokapen-panelak, ez sarbideen berri emateko kartelak... (Gasteizen ikusi dugu afixa egokitu gehien).

GEHIAGO JAKITEKO
www.consumer.es

**EROSKI CONSUMERREK BISITATU DITUEN
143 KIROLDEGIEN BALORAZIOA, HIRIZ HIRI**

| HIRIA (*) | Informazioa eta eskuragarri dauden zerbitzuak ⁽¹⁾ | Mantentze-lanak eta garbitasuna ⁽²⁾ | Irispideak ⁽³⁾ | Segurtasuna eta zaintza ⁽⁴⁾ | Azken emaitza ⁽⁵⁾ |
|-----------------------|--------------------------------------------------------------|------------------------------------------------|---------------------------|----------------------------------------|------------------------------|
| A CORUÑA | Onargarria | Oso Ona | Onak | Oso Ona | Ona |
| ALACANT | Hala-holakoa | Oso Ona | Onargarriak | Onargarria | Onargarria |
| BARTZELONA | Oso Ona | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| BILBO | Oso Ona | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| CADIZ | Hala-holakoa | Oso Ona | Onargarriak | Oso Ona | Onargarria |
| KORDOBA | Oso Ona | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| GRANADA | Oso Ona | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| MADRIL | Oso Ona | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| MALAGA | Oso Ona | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| MURTZIA | Onargarria | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| OVIEDO | Onargarria | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| IRUÑEA | Onargarria | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| DONOSTIA | Oso Ona | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| SEVILLA | Onargarria | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| VALENTZIA | Onargarria | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| VALLADOLID | Onargarria | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| GASTEIZ | Oso Ona | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| ZARAGOZA | Oso Ona | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |
| BATEZ BESTEKOA | Onargarria | Oso Ona | Oso Onak | Oso Ona | Oso Ona |

(*) Guztira, 143 kirol-instalazio publiko bisitatu ditugu: Madrilen eta Bartzelonan 20; Sevillan, Valentzian eta Zaragozan 10; Bilbon eta Malagan 7; Alacanten, Kordoban, Valladoliden, Murtzian eta Gasteizen 6; A Coruñan, Cadizen, Granadan, Oviedon eta Donostian 5; eta Iruñean 4. (1). Instalazio bakoitzak zenbat informazio ematen duen (kartelak, seinaleak...) eta zer-nolako zerbitzuak eskaintzen dituzten. (2). Aldagelak, komunak, dutxak, igerilekua, kafetegia, taberna edo jatetxea zein kirol-tresnak eta zoluak ongi zainduak eta garbiak ote dauden (3). Zer-nolako irispideak daukaten, bai kanpotik barrura sartzeko, eta bai barruan areto batetik bestera joateko (malda, igogailuak, aparkalekua egokituak...)(4): Instalazioen segurtasunarekin zerikusia duten hainbat alderdi balioetsi ditugu: suteen aurkako elementurik eduki duten (su-itxalgailuak, hodi malguak, ur-hinztargailuak, eta abar), atekak, argiak, larrialdiko irteerak, instalazioetako argiak, lur labainkorrik eduki duten, arriskutsu gerta daitezkeen elementuak... (5). Aztertu ditugun alderdi guztien emaitzak ponderatuz lortu dugu azken emaitza.

